

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko martxoaren 6an erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez, 2020. urtean kirol programak egiteko lehiaketa askeko diru-laguntzen deialdia onartu da

BDNS (Identif.): 499017

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bd-nstrans/index>): eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus).

Lehenengoa. Onuradunak

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2020an norbanakoek edo kirol antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kirol-egitasmoak.

Bigarrena. Xedea

Gure udalerrian 2020an kirol-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena. Oinarri arautzailea

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko martxoaren 6an hartutako erabakiaren bidez onartu zen. ALHAOn 2020ko martxoaren 13 datarekin argitaratuko da.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honetarako zuzkidura 64.583,00 eurokoa izango da, 2020 urteko aurrekontuan eta 0600 3411 48100 partidaren kargutan.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeita hamar egun natural pasatu arte.

Laudio, 2020ko martxoaren 6a

Alkate-udalburua

ANDER ANIBARRO MAESTRE